

## V.BENITO ANSOLA SARIA

### OINARRIAK:

Euskaltzaleen Topaguneak, **BENITO ANSOLA SARIA** sortu zuen 2010ean, euskal kultura zabaldu eta ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza emateko asmoz.

Lekeitioko Udalak antolatzen duen Euskal Zine Bilerak, Mikel Laboa katedraren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren laguntzaz, bosgarren edizioa antolatu du 2019an.

### **Saridunak 3.000 euroko diru-laguntza izango du, ondorengo oinarrien arabera:**

1. Deialdi honetara, ikus-entzunezko lanak (fikzio, sorkuntza, animazio nahiz dokumentalak) egiteko proiektuak aurkeztu daitezke, jatorrizkoak eta beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

2. Euskararen presentzia ezinbestekoa izango da, ahozkoa edo idatzizkoa euskara hutsean. Beste edozein hizkuntzaren presentzia, ikus-entzunezkoan ondo arrazoitu beharko da.

3. Deialdian Euskal Herrian bizi edo jaio diren gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Bakarka nahiz taldeka aurkeztuz gero, gutxienez 18 urte beteta izan beharko dira oinarri hauen argitalpen egunean eta lana entregatzean 36 urte bete gabe.
- Taldean aurkeztuz gero, talde teknikoaren adina hartuko da kontuan, ez ekoizpenean agertzen diren aktore edo pertsonaiena.
- Sarietako aurreko deialdian irabazle suertatu ez badira.

4. Parte hartzaile edo talde bakoitzak, **2019ko irailaren 20ra bitartean**, mezu elektronikoko bat bidali beharko du honako ezaugarriekin:

- Nori zuzendua: [itsaso@topagunea.eus](mailto:itsaso@topagunea.eus)
- Gaia: Benito Ansola Sariak. Proiektuaren izena
- Mezuari atxikirik, dokumentu batean: egilearen edo taldekide bakoitzaren izen abizenak, helbide fisikoa, posta elektronikoa, telefono mugikorreko zenbakia, nortasun agiriaren irudia eta egilearen argazki bat.
- Taldeen kasuan, bakoitzaren argazkiaz gain, taldeko argazkia ere gehitu beharko da.

5. Mezuari atxikirik eta pdf artxibo bakarrean honakoak gehituko dira:

- Landu nahi den ikus-entzunezkoaren gidoia, eskaleta edo storyboard-a. (Gehienez 3 orri)
- Zuzendariaren memoria: landu nahi den ikus-entzunezkoaren azalpenarekin (izenburua, sinopsia, argumentua, iraupena, generoa). Halaber, memorian zuzendariak azaldu ahal du, ikuspegi pertsonaletik, bere ibilbidea, aurkezten duen lanaren zergatia, zer adierazi nahi den... (Gehienez 3 orri).
- Ikus-entzunezkoaren aurrekontu justifikatua eta ekoizpen plana: non eta noiz filmatuko den, zein ekipo tekniko, baliabide edo eta alokairuak egingo diren eta abar.
- PDF artxiboan dagokion proiektuaren izena azalduko da argi eta garbi. Horrez gain, ez du izango egilea(k) identifikatzeko balio dezakeen daturik.

**6. Epaimahaiak baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak aztertu, eta haietako hiru izendatuko ditu 2019ko Lekeitioko Euskal Zine Bileran, bi epaileren aurrean lanak aurkeztu eta defendatu ditzaten (hiru lan horien defentsak entzun ostean erabakiko du epaimahaiak nor den Benito Ansola Sariaren 5.edizioko irabazlea).**

Aurre aukeraketarako jasotako lanak honela puntuatuko dira:

- Aurkeztutako gidoia/eskaleta/story-board-a: 50 puntu gehienez.
- Aurkeztutako zuzendariaren memoria: 40 puntu gehienez.
- Sorkuntzako lan prozesuan emakumeak aritzea (autorea zein lantaldea): 10 puntu gehienez.

Ezinbestekoa izango da aurre aukeratutako lanen egileak Euskal Zine Bilerako ekitaldian egotea.

**7. 2019ko azaroaren 30ean, Lekeitioko Euskal Zine Bilerako amaiera ekitaldian, iragarriko da lan irabazlea zein den eta egileari edo egileei Saria emango zaie ekitaldian bertan.** Saria jaso ahal izateko, lan sarituaren egileek bertan egon beharko dute.

8. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitatetik ez dutela iritziz gero, saria eman gabe utz dezakete epaimahaiak zein antolatzaileek.

9. Antolatzaileek ez dute bere egiten lanen proiektu eta lan bukatuetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota emandako iritziak. Beraz, ez dute inongo erantzukizunik.

10. Sari bakoitzeko diru-kopuruaren erdia (1500 euro), izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, ikus-entzunezko amaitua jendaurrean aurkeztu ondoren. Sariako dirua emateko ekitaldian, sarituen presentzia guztiz beharrezkoa izango da, talde osoa ez bada ere, taldearen ordezkari bat joan beharko da saria jasotzera.

11. Irabazleak, izendapena jaso eta 2020ko irailaren 4ra bitarteko epea izango du, gehienez, ikus-entzunezko amaitua Euskaltzaleen Topaguneari helarazteko. Lanaren bukaerako kredituetan sariaren aipamena egingo da nahitaez, antolatzaileek adierazitako testu eta logoekin edota irudiekin.

12. Ikus-entzunezkoaren iraupena gutxienez 3 eta gehienez 18 minutukoa izango da animaziozko lanen kasuan. Animaziozkoak ez diren beste ikus-entzunezkoentzat, iraupena gutxienez 9 eta gehienez 18 minutukoa izango da. Esleipena egin ondoren, egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, antolatzaileei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso beharko du.

13. Ikus-entzunezkoaren sortzaileak edo sortzaile taldeak lana entregatuko ez balu, edo lan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoaren aldean nabarmen kaxkarragoak balira, itzuli egin beharko du jasotako dirua.

14. Diru-laguntza jasotako lanaren jabetza egilearena izango da. Alabaina, lan hori ezin izango da jendaurrean erakutsi, Lekeitioko 2020ko Euskal Zine Bileran estreinatu eta ekitaldi hau bukatu bitartean.

15. Sari honetan saritutako lana, beste lehiaketa batzuetara aurkeztu ahal izango da, beti ere oinarri hauetan aipatzen diren baldintzekin kontraesanean erortzen ez bada.

16. Saritutako lana **Creative Commons AITORTU-PARTEKATU** lizentziapean zabalduko da. Horren arabera, egileek baimena ematen dute euren lana edozeinek **ikusi, erakutsi edota berrerabiltzeko**, beti ere **egiletza aitortuz eta eratorritako lanak oinarri hauekiko baldintza berdinetan partekatuz**. Informazio gehiagorako, ikus: <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>. Topaguneak eta Euskal Zine Bilerak saritutako lanak argitaratu, zabaldu eta barne egitasmoetan erabiltzeko eskubidea izango du.

17. Oinarrien ulermenean zalantzarik balego, Euskaltzaleen Topaguneari dagokio erabakitzea. Egokia dela baderitzo, parte hartzaileek bete beharreko baldintza zein oinarriak aldatzeko eskumena izango du.

18. Sari-deialdi honetan parte hartzeak, bertako oinarriak ontzat ematea dakar.

**OHARRA.-** Edozein argibidetarako kontaktua:

**Itsaso Lekuona:** [itsaso@topagunea.eus](mailto:itsaso@topagunea.eus)  
943591186/ 661746256  
Euskaltzaleen Topagunea